Código de validación/*Balidazio kodea*
2M013G542I4S330M0WCA

***Txostena egin duen funtzionarioa***
*Daniel Salazar Irusta. Idazkaria*

***Gaia***
*Udaleko talde politikoen eraketa*

***Aurrekariak***
*Udalaren eraketa*

***Aplikatzen den legedia***
*Apirilaren 2ko 7/1985 Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen -zeina apirilaren 21ko 11/1999 eta abenduaren 16ko 57/2003 legeak aldarazi duten*
*Abenduaren 9ko 19/2013 Legeak arautzen dituen gardentasuna eta informazio publikora iristeko lotutako alderdiak*
*Toki Erakundeetako Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua 2568/1986 ED, azaroaren 28koa*

*Udalbatzarraren Araudi Organikoa*

**Funcionario/a que lo emite**
Daniel Salazar Irusta. Secretario/a

**Asunto**
Constitución de grupos políticos municipales

**Antecedentes**
Constitución del Ayuntamiento

**Legislación aplicable**
Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local 7/1985, de 2 de abril, modificada por la Ley 11/1999, de 21 de abril, modificada por la Ley 57/2003, de 16 de diciembre
Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno
Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, Real Decreto 2.568/1986, de 28 de noviembre
Reglamento orgánico de la Corporación

---

*Toki-araubidearen Oinarriak Arautzeko Apirilaren 2ko 7/1985 Legean talde politikoak ez dira aipatzen, udal organo osagarrietan parte hartzeari buruzkoa den 20,1 c) artikuluan izan ezik. Nolanahi ere, taldeon osaketa eta eraketa xehetasunez azalduta dago Toki-entitateen Antolakuntza, Jarduera eta Lege-araubideari buruzko Araudiko 23. artikuluan eta ondorengoetan, azaroaren 28ko 2568/1986 Erret-dekretuan. Bertan dioenaren arabera Toki-udalkideak taldeka eratuko dira Udalbatzarrean jardun ahal izateko. Pertsona bera ezin izango da talde bat baino gehiagoko partaide izan.*

Si bien en la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local sólo encontrábamos referencia a los grupos políticos, en el artículo 20,1 c) sobre participación en los órganos complementarios del Ayuntamiento, la formación o constitución de tales grupos políticos viene detallada en el artículo 23 y siguientes del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, conforme al cual los/as miembros de las Corporaciones locales, a efectos de su actuación corporativa, se constituirán en grupos. Nadie puede pertenecer simultáneamente a más de un grupo.

*11/1999 Legearekin Toki-araubidearen Oinarriak arautzeko Legean egindako aldaketaren ondorioz 3. atal berri bat gehitu*

A partir de la modificación de la Ley de Bases operada mediante la Ley 11/1999, de 21 de abril, se añade un nuevo apartado 3 al

*zaio 73 artikuluari. Atal horretan ezarritakoaren arabera Udalbatzar osoak urteko bere aurrekontuetatik diruz hornitu ditzake talde politikoak. Diru-hornidura horrek bi zati izango ditu: bata zenbateko finkoa, talde guztientzat berdina, eta bestea zenbateko aldakorra, talde bakoitzaren kide-kopuruaren araberakoa. Zenbatekook ez dituzte inoiz gaindituko Estatuko Aurrekontu Orokorren legeek ezarritako mugak, eta ez dira erabiliko Udalbatzarraren zerbitzuko edozein langileri ordaintzeko edo aktibo finko izan daitezkeen ondare-ondasunak erosteko.*

artículo 73, conforme al cual el Pleno de la Corporación, con cargo a los Presupuestos anuales de la misma, podrá asignar a los grupos políticos una dotación económica que deberá contar con un componente fijo, idéntico para todos los grupos, y otro variable, en función del número de miembros de cada uno de ellos, dentro de los límites que, en su caso, se establezcan con carácter general en las Leyes de Presupuestos Generales del Estado, y sin que puedan destinarse al pago de remuneraciones de personal de cualquier tipo al servicio de la Corporación o a la adquisición de bienes que puedan constituir activos fijos de carácter patrimonial.

*Talde politikoek aurreko lerroaldean aipaturiko diru-horniduren berariazko kontabilitatea eramango dute, eta Udalbatzarrak eskatzen duenenean aurkeztu beharko dute.*

Los grupos políticos deberán llevar una contabilidad específica de la dotación a que se refiere el párrafo anterior, que pondrán a disposición del Pleno de la Corporación siempre que éste lo pida.

*Arauketa honekin Udalbatzarreko gobernu-organoen funtzionamendua hobetzea lortu nahi da. Argi dago legegilea 1982ko otsailaren 10eko Diputatuen Kongresuaren Araudiak agindutakoan oinarritu dela, bertan arautzen baita talde parlamentarioen eraketa eta jarduera.*

La finalidad que se persigue con esta regulación es el mejor funcionamiento de los órganos de gobierno de la Corporación. El legislador se ha inspirado para ello, claramente, en los preceptos del Reglamento del Congreso de los Diputados, que regula la constitución y funcionamiento de los grupos parlamentarios.

*Talde horiek eratzeko moduari dagokionez, AJEren 24,1 eta 2. artikuluak ezartzen du talde politikoak presidenteari zuzendutako idazki bidez eratuko direla. Idazki hori taldekide guztiek izenpetuko dute eta Udalbatzarraren Idazkaritza Nagusian aurkeztu beharko da Udalbatzarra eratu eta ondorengo bost lanegunen buruan. Eraketa-idazki horretan taldeko bozeramalea eta, nahi izanez gero, bere ordezkoak zein diren ere jaso beharko da.*

En cuanto a la forma de su constitución, el artículo 24,1 y 2 ROF establece que, los grupos políticos se constituirán mediante escrito dirigido al/a la Presidente/a, suscrito por todos/as sus integrantes, que se presentará en la Secretaría General de la Corporación dentro de los cinco días hábiles siguientes a la constitución de la Corporación. En el mismo escrito de constitución se hará constar la designación de portavoz de grupo, pudiendo designarse también suplentes.

*AJEren 25. artikuluan ezartzen da presidenteak 24,1. artikuluan ezarritako epea bukatu ondorengo lehen bilkuran emango diola Udalbatzarrari talde politikoen eraketaren, taldekideen eta bozeramaleen berri.*

Y el artículo 25 ROF establece que, de la constitución de los grupos políticos y de sus integrantes y portavoces, el/la Presidente/a dará cuenta al Pleno en la primera sesión que se celebre tras cumplirse el plazo previsto en el número 1 del artículo anterior.

*Bestalde, udalkide izaera Udalbatzarra eratu ondoren eskuratu duten udalkideak Udalbatzarrak erabakitzen dituen erregelekin bat etorriz sartu beharko dira taldeetan.*

De otra parte, los/as miembros de la Corporación que adquieran su condición con posterioridad a la sesión constitutiva de la Corporación deberán incorporarse a los grupos, conforme a las reglas acordadas por la Corporación.

*Toki-entitateen Antolakuntza, Jarduera eta Lege-araubideari buruzko Araudiak ezartzen du inor ezin dela talde bat baino gehiagoko kide izan; baina talde batetik bestera pasatzeari buruz ez dago ezer araututa, eta badirudi hori posible dela, ez baitago espreski debekatuta, Udalbatzarraren Araudi Organikoan kontrakoa arautzen ez bada behintzat. Udal taldea hautagai-zerrenda bakar bateko zinegotziekin eratuko da, horiek talde bakar bat eratuko dutelarik. Udal talde horietan sartuta geratu ez diren zinegotziek talde misto bat eratuko dute, norberaren taldeak daraman politikarekin bat ez datozen zinegotziez osatzen joan daitekeena.*

El Reglamento de Organización y Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales establece que nadie puede pertenecer a más de un grupo. Pero nada se regula sobre la posibilidad de pasarse de un grupo a otro, lo cual parece posible al no estar expresamente prohibido, salvo que, como queda dicho, esta materia se regule en el Reglamento orgánico de la Corporación, limitando la posibilidad de constituir grupo municipal a los/as concejales/as de una misma lista electoral, que constituirán un único grupo, pasando los/as concejales/as que no queden integrados en los correspondientes grupos a un grupo mixto, que podrá ir nutriéndose a lo largo de la legislatura de concejales/as que no estén de acuerdo con la política de su grupo.

*Edozein legegintza-ganbera edo parlamentutan bezala tokiko hautetsien taldea ordezkari-antolakunde legez eratu daiteke Udalbatzarrean. Gure Konstituzio Auzitegiak bere epaietako batean emaniko doktrinan (30/1993 Konstituzio Auzitegiaren Epaia) talde politikoen izaera eta izena ematen die, eta hori toki-jaurbideari buruzko legeen interpretazio sistemiko baten oinarrituta eta Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Jurdikoaren 27 eta 28*

Al igual que en cualquier Cámara legislativa o Parlamento el grupo de electos/as locales puede constituirse como una organización de representantes en el Pleno municipal. Nuestro Tribunal Constitucional en doctrina contemplada en alguna de sus Sentencias (STC 30/1993), los considera con la naturaleza y la denominación de grupos políticos, y ello en base a una interpretación sistemática de las leyes sobre régimen local y a tenor de la literalidad de las previsiones

*artikuluetan bildutako aurreikuspenetan hitzez hitz jasotzen denari jarraituz.*

contenidas en los mencionados artículos 27 y 28 del Reglamento de Organización Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales.

*Daukaten izaera juridikoagatik apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bitartez -azaroaren 18ko 2568/1986 Legegintzako Errege Dekretuan garatua- estatuko legegile arruntak sortutako elkarteak dira. Izaera propioa izanik ere, ez daude txertatuta dagokien udal organigramaren oinarrizko antolaketa-egituran ez eta antolaketa-egitura osagarrian ere, eta beraien egintzak ezin zaizkio egotzi dagokion toki-erakundeari, hala adierazten baitu Auzitegi Goernak emaniko hainbat epaitan (Administrazioarekiko Auzien Salaren 4. sekzioaren 1994ko otsailaren 8ko Auzitegi Gorenaren epaian).*

Por su naturaleza jurídica son entidades asociativas, creadas por el legislador ordinario estatal mediante la Ley 7/1985, de 2 de abril, desarrollada por el Real Decreto Legislativo 2568/1986, de 18 de noviembre. Aun cuando cuentan con sustantividad propia, no están insertos en la estructura organizativa básica y complementaria del correspondiente organigrama municipal, ni sus actos son susceptibles de ser imputados a la Entidad Local correspondiente, como indica el Tribunal Supremo en diversas de sus Sentencias (STS de 8 de febrero de 1994 Sala de lo Contencioso Administrativo, Sección 4ª)

*Horien eraketaren aintzatespena eta beraien jarduketen kontu-hartzea, kontrola eta fiskalizazioa Udalbatzarrak egin beharko du legean eta toki mailako arauetan aurreikusitako kasuetan.*

El reconocimiento de su constitución, la intervención y control y fiscalización de sus actuaciones, en los casos previstos en la ley y en la reglamentación local específica, corresponderá al propio Pleno municipal.

*Laburbilduz, udal talde politikoa tokiko kargu hautetsien elkartetzat har daiteke, zeinak agintea ematen zaienean, beraien ideia politikoen kidetasunagatik, elkartu egiten baitiren, hautatuak izan diren agintaldian eta dagokien erakundean beraien ordezkaritza-eginkizunak egintza bateratu bidez burutzeko.*

En resumen, se puede entender el grupo político municipal como una asociación de cargos electos/as locales que una vez investidos/as de autoridad, se unen por afinidad de su ideario político con la finalidad de ejercitar sus funciones representativas mediante una acción conjunta en la institución de la que forman parte, durante el mandato para el que fueron elegidos/as.

*Toki-eremuko talde politikoen garrantzia, botoaren bidez konfidantza eman dieten herritarren interes, irrika eta desiren ordezkari legitimo diren aldetik, ez da gehiengoen jolas demokratikoaren ondorioz udal gobernua lortu duten haietara mugatzen, gobernu-erantzukizunik ez baina beharrezko oposizio politikoa egiten duten*

La relevancia de los grupos políticos en el ámbito local, en cuanto representantes legítimos de los intereses, anhelos y deseos de aquellos ciudadanos y ciudadanas que les han otorgado su confianza mediante el voto, no se limita a aquellos que ejercen el gobierno municipal como consecuencia del juego democrático de las mayorías, sino que se extiende igualmente a los grupos que no

*taldeetara ere hedatzen da.*

*Ildo honetatik beharrezko betekizuna da talde politikoek beraien eginkizunak zuzentasunez betetzeko baliabideak izatea, udalerriko herritarren zati baten konfidatzaren gordailuzain eta horien iritziaren transmititzaile diren aldetik, beraien ordezkaritza-funtzioak benetako edukia izan dezan.*

*Indarrean dauden lege eta arauetan oinarriturik, goialdean azaldutako jurisprudentzia-interpretazioari jarraituta eta AJEren 27. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Udalbatzarraren antolakuntza administratiboak funtzionalki ahal duen neurrian, talde politikoek bulego edo lokal bat izango dute, bildu zein herritarrei harrera egiteko; eta presidenteak edo barne-jardunaren ardura duen udalkideak baliabide material eta pertsonalen gutxieneko azpiegitura jarriko du talde politiko horien zerbitzura.*

*Gainera talde politikoek Udalbatzarraren lokalak erabili ahal izango dituzte lan-batzarrak edo bilkurak egiteko, baldin eta batzar edo bilkura horiek biztanleriaren interes kolektibo, orokor eta sektorialak defendatzeko egiten badira.*

*Presidenteak edo barne-jardunaren ardura duen udalkideak, ezinbestekoa den koordinazio funtzionala eta talde bakoitzaren ordezkaritza politikoa kontutan izanik, araubide zehatza ezarriko du Udalbatzarreko taldeek lokalak erabiltzeko.*

ostentan responsabilidades de gobierno pero sí ejercen la necesaria labor de oposición política.

En este sentido, la existencia de medios que posibiliten el correcto ejercicio de sus funciones por parte de los grupos políticos se constituyen en requisito necesario para dar contenido efectivo a la función representativa que desempeñan los mismos en cuanto depositarios de la confianza y transmisores del sentir de una parte de la ciudadanía del municipio.

En base a la normativa legal y reglamentaria y a la interpretación jurisprudencial anteriormente expuesta, en la medida de las posibilidades funcionales de la organización administrativa de la Corporación, los diversos grupos políticos dispondrán en la sede de la misma de un despacho o local para reunirse de manera independiente y recibir visitas de ciudadanos/as, y el/la Presidente/a o el/la miembro de la Corporación responsable de régimen interior pondrá a su disposición una infraestructura mínima de medios materiales y personales, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 ROF.

También, los grupos políticos podrán hacer uso de locales de la Corporación para celebrar reuniones o sesiones de trabajo con asociaciones para la defensa de los intereses colectivos, generales o sectoriales de la población.

El/La Presidente/a o el/la concejal/a responsable del área de régimen interior establecerá el régimen concreto de utilización de los locales por parte de los grupos de la Corporación, teniendo en cuenta la necesaria coordinación funcional y de acuerdo con los niveles de representación política de cada uno de ellos.

*AJEren 28,1, 2 eta 3. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, batzar horiek ezin izango dira egin Udalbatzak edo Toki Gobernu-batzordeak bilkurak egiten dituztenean.*

No se permitirá este tipo de reuniones coincidiendo con sesiones del Pleno de la Corporación o de la Junta de Gobierno Local, según establece el artículo 28,1, 2 y 3 ROF.

*AJEren 28 artikuluan jasotzen den eskubidea talde politikoei bakarrik dagokie eta, ondorioz, ez dute eskubide hori izango udal antolketaren baitan kokatzen ez diren pertsonek, kasu honetan gertatzen den moduan, ondasun publiko bat erabili nahi delako talde politiko batek bere jarduera egikaritzeko lokal edo bulego iraunkor legez.*

El derecho configurado en el artículo 28 ROF se otorga exclusivamente a los grupos políticos, por lo que no puede incluirse en el mismo a personas que no se encuentren encuadradas dentro de la organización municipal, por ejemplo, si se quiere utilizar un bien público como local u oficina permanente para que pueda desarrollar su actividad un partido político.

*Izan ere talde politikoa eta alderdi politikoa ezin dira elkarrekin nahastu. Talde politikoaren kontzeptua AJEn definitzen da: toki-korporazioetako kideek korporazioan izango duten jarduerarako eratzen dutena (AJEren 23.1 artikulua).*

En efecto, no hay que confundir grupo político con el partido, la noción de grupos políticos se contiene en el ROF, en la que se define como aquéllos constituidos, a efectos de su actuación corporativa, por los/as miembros de las Corporaciones Locales (artículo 23.1 ROF).

*Konstituzio Auzitegiak berak ezartzen du kargu publikoaren titular bakarrak ordezkariak direla, kasu honetan zinegotziak, eta ez hautatuak izan diren erakunde politiko edo elektoralak, eta ondorioz, zinegotziak direla, halaber, Udala eratzen dutenak, eta ordezkaritza, hitzaren esanahi juridiko-politikoan, hautapenarekin bakar bakarrik sortzen den hauteskunde-kidegoaren ordezkaritza bat dela, ez erakundeena. Horrela, bada, eta kasu honetan aplikagarri den toki-legeriari buruzko araudiari dagokionean, hala estatuko legerian nola autonomi erkidegokoan erabiltzen den "talde politiko" terminoa ezin da udal talde politikoei aipamena egiteko ez bada, alegia, zinegotziek korporazioan jarduteko eta beraien artean hiru edo gehiago elkartuta eratzen dituztenak, hala ezartzen baita Konstituzio Auzitegiaren 1993ko urtarrilaren*

El propio Tribunal Constitucional tiene establecido que "son los representantes, en este caso los Concejales y no las formaciones políticas o electorales en cuyas listas son elegidos, quienes ostentan la exclusiva titularidad del cargo público y quienes, en consecuencia, integran el Ayuntamiento (artículo 19 LBRL), así como que la representación en sentido jurídico político del término surge sólo con la elección y es siempre representación del cuerpo electoral y nunca de aquellas formaciones" (…) "Así pues, y en lo que se refiere a la normativa sobre legislación local aquí aplicable, la expresión grupos políticos de la que se hace uso tanto en la legislación estatal como autonómica no puede entenderse referida sino a los grupos municipales, esto es, los que constituyen los Concejales mediante su agrupación a los efectos de su actuación corporaqtiva y en

*25eko Epaian).*

número no inferior a tres" (Sentencia del TC de 25 de enero de 1993).

*Laburbilduz, AJEren 28 artikuluan jasotzen den eskubidea udal talde politikoek bakar bakarrik gauzatu dezakete, ez inolako alderdi edo erakunde politikok, ez eta lokaletan edozein jarduera egiteko ere, baizik eta elkarteekin herritarren interes kolektibo, orokor edo sektorialak defendatzeko lan-bilerak edo -bilkurak egiteko bakar bakarrik.*

En conclusión, el derecho contemplado en el artículo 28 ROF puede ser ejercido exclusivamente por los grupos políticos municipales, no por ningún partido ni formación política, y no para desarrollar en los locales cualquier actividad, sino, solamente, para celebrar reuniones o sesiones de trabajo con asociaciones para la defensa de los intereses colectivos, generales o sectoriales de la población.

*Bestalde AJEren 29. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, talde politikoei dagokie, bozeramaleak presidenteari zuzenduriko idazkiaren bidez eta aipaturiko araudian ezarritako baldintzak betez, talde desbedinetako kidez osatutako organo kolegiatu guztietan jarduteko ordezkariak izendatzea.*

De otra parte, corresponde a los grupos políticos designar, mediante escrito de su portavoz dirigido al/a la Presidente/a y en los términos previstos en cada caso en el citado Reglamento, aquéllos/as de sus componentes que hayan de representarlos en todos los órganos colegiados integrados por miembros de la Corporación pertenecientes a los diversos grupos, conforme establece el artículo 29 ROF.

*Talde politikoen egitekoak eta eskuduntzak beti ere udaleko organoek eta udalkideek dituztenen kaltetan gabe ulertu beharko dira. Alkateak, taldeetako bozemaleen bitartez, gairik interesgarrienei buruzko kontsultak egin ahal izango dizkie talde politikoei eta, ezer erabaki baino lehen, informazioa jaso dezake horiengandik, eta hori baino garrantzitsuagoa dena, Udalbatzarra osatzen duen espektro politiko guztia erabakietan parte hartzera bultzatu dezake.*

Las funciones y las atribuciones de los grupos políticos se entienden, en todo caso, sin perjuicio de aquéllas que corresponden a los órganos municipales y a los/as miembros de la Corporación. El/La Alcalde/sa tiene la posibilidad de consultar, en los asuntos de mayor interés, a estos grupos a través de sus portavoces, y se puede informar antes de tomar decisiones y lo que es también importante, puede hacer participar a todo el espectro político que integra la Corporación en aquella toma de decisiones.

*Udalbatzarraren jarduera ere hark bere burua autonomoki antolatzeko duen ahalmenen barne dago, horren adierazpenik jatorrena Udalbatzarraren Araudi Organikoa izanik.*

La materia de su funcionamiento entra de pleno en las facultades de autoorganización, cuya expresión más genuina la constituye el Reglamento orgánico de la Corporación.

*Horixe adierazten diot Udalbatzarrari jakinaren gainean egon dadin, eta udal talde politikoak indarreango legeriarekin bat etorriz eratu daitezen.*

Es lo que someto a la Corporación para su conocimiento y toma de razón, para que se proceda a la constitución de los grupos políticos municipales de conformidad con la legalidad vigente.

Fdo./Sin.:
Secretario/Idazkaria
Daniel Salazar Irusta
01-06-2023 13:14